ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko martxoaren 14a, asteazkena • 31 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Haurren eta gazteen aisialdiko hezitzaileak prestatzeko eskoletarako 2018. urteko deia

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2016ko apirilaren 15ean, onetsi egin zituen Gazteriaren Foru Erakundeak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

Haurren eta gazteen aisialdiko hezitzaileak prestatzeko eskoletarakogazteei aisialdirako zuzendutako deialdi hau, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2018ko otsailaren 28ko bileran onartutakoa, aipatutako oinarri arautzaile orokorrei eta ondoko ataletan ezarritakoari lotuko zaie.

1. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak ematea lehiaketa bidez. Dirulaguntzak ematearekin lortu nahi dena da haurren eta gazteen aisialdiko prestakuntza eskolei laguntzea, haurrekin eta gazteekin aisialdian dabiltzan pertsonentzako prestakuntza ikastaroak eman ditzaten.

2. Erakunde onuradunak

• Haurren eta gazteen aisialdiko eskolak, baldin eta sozietatearen egoitza edo ordezkaritza Araban edo Trebiñuko Konderrian badaukate, Araban ofizialki onartuta badaude eta lurralde honetan ematen badituzte ikastaroak.

• Haurren eta gazteen aisialdiko eskolak, baldin eta beste lurralde batean ofizialki onartuta egon arren, ikastaroak Araban onartu badizkiete.

Eskolek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: haurren eta gazteen aisialdiko hezitzaileen prestakuntza eskolak nola aitortu arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuan ezarritakoak, eta dekretu horren I. eta II. eranskinak egunerratzen dituen 2016ko urriaren 27ko Aginduan ezarritakoak.

Erakunde baztertuak:

Gazteriaren Foru Erakundeak ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretako hirugarren klausulan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten erakundeak baztertu egingo dira.

3. Diruz lagundu daitezkeen programak eta gastuak

3.1. Ikastaro hauek antolatu eta ematea diruz lagundu ahalko da:

1. Aisialdiko hezkuntza jardueren begiraleentzako ikastaroak.

2. Aisialdiko hezkuntza jardueren zuzendarientzako ikastaroak.

Diruz lagundutako ikastaroak 2017-2018 ikasturtean (2017ko irailean hasi eta 2018ko abuztuaren 31n amaitu) eman behar dira, eta behar besteko aurrerapenarekin eman behar da haien berri, lehen aipatutako 419/1994 Dekretuarekin bat etorriz eta, edonola ere, dirulaguntza eskatu baino hamabost egun natural lehenago.

Araban onartutako eskolei begirale, begirale edo zuzendari eta zuzendari izateko hiru ikastaro, gehienez ere, diruz lagunduko zaizkie. Salbuespenez beste ikastaro bat gehiago diruz lagundu ahalko da, baldin eta Gasteiz ez den Arabako edozein herritan egiten bada. Lehen aipatutako ikastaroetatik gehienez ere bi izango dira trinkoak, honako hauek ulertuko direlarik ikastaro trinkotzat: prestakuntza teoriko-praktikoko gaiak sei eta zortzi ordu bitarteko moduluetan ematen direnak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Beste lurralde batean onartutako eta ikastaroak Araban emateko baimena daukaten eskolei begirale, begirale edo zuzendari eta zuzendari izateko bi ikastaro, gehienez ere, diruz lagunduko zaizkie.

3.2. Gastu hauek ez dira diruz lagunduko, salbu eta dirulaguntza emateko ebazpenak kontrakoa adierazten badu:

a) Inbertsio gastuak, salbu eta ikastaroak egiteko beharrezkoa den material ez-suntsikorra eskuratzekoak, zeinak gehienez ere 2.500 eurorekin diruz lagunduko baitira.

b) Ondasun higiezinak eskuratu, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

c) Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

4. Eskaerak aurkeztea

4.1. Eskaerak hogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztuko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gazteriaren Foru Erakundeko bulegoetan, Gasteizen, edo hitzartutako udaletako erregistro orokorretan, horretarako berariaz diseinaturiko ereduetan, zeinak eskuragarri egongo baitira erakunde horren bulegoetan eta erakundearen web orrian www.araba.eus/gazteria.

4.2. Eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztuko dira:

a) Administrazio agiriak:

1. Eskaera sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia, lehenago aurkeztu ez badu.

2. Haurren eta gazteen aisialdiko prestakuntza eskola gisa onartu izanaren fotokopia. Gazteriaren Foru Erakundean hura lehenago aurkeztu duten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, salbu eta aldaketaren bat egin badute eskaera aurkeztu zen datatik aurrera.

3. BEZaren salbuespenaren ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana (baldin eta aldez aurretik aurkeztu ez bada) edo erakundeko presidentearen kargua doakoa delako adierazpena.

4. Erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiriaren fotokopia, indarrean, eta polizaren fotokopia, behin bakarrik, baldintzetan edozein aldaketa egin arte.

b) Berariazko agiriak:

1. Emango diren ikastaroen zerrenda, zeinen berri aldez aurretik eman behar baita:

— Helburuak.

— Plangintza eta garapena.

— Zein herritan emango diren.

— Zein hizkuntzatan emango diren.

— Genero ikuspegia txertatzea ikstaroetan.

— Parte hasrtzaileen kopurua.

2. Ikastaro bakoitza egiteko aurreikusitako gastuen eta diru sarreren aurrekontu xehatua, azalduz beste erakunde edo entitate publiko edo pribatuei egindako laguntza eskaerak eta entitatearen beraren ekarpenak.

3. Soldatapeko langileen zerrenda, zehaztuz zein lanpostu betetzen duten, zer ordutegi daukaten, kontratuaren datak zein diren, zer arduraldi daukaten eta horrek zer kostu daukan.

4. Sozietatearen egoitza Araban ez daukaten erakundeek egoera hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute (behin bakarrik aurkeztuko da, harrez geroztik aldaketarik egin ez badute), baita kasuan kasuko zerga ogasunarekin dauzkaten zerga betebeharrak beteta dauzkatela egiaztatzen duen agiria ere.

Euskal Autonomia Erkidegoa izanez gero, jardueraren jakinarazpena aurkeztuko da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantza-rekikoak egunean dituela eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola egiaztatu beharko du. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeen egiaztagiriak aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz. Zerga betebeharrei dagokienez, nahikoa izango da egunean dituela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da hori egiaztatzea, Foru Ogasunari dagokion agiria eskatuz.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri orokorretan eta deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5. Aurrekontua izatea eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Helburu horretara bideratu den zuzkidura berrogeita zazpi mila eurokoa (47.000 euro) da, eta Gazteriaren Foru Erakundearen 2018rako gastu aurrekontuko 71.1.00.10.00.4.8.1.00.01 partidari egotziko zaio.

Zenbateko gehigarria erantsi ahalko zaio deialdiari, betiere hamar mila euro baino gutxiago, baldin eta aurrekontu kreditua badago. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da; hala ere, argitaratzeak ez du esan nahi epea zabaltzen denik eskaera berriak aurkezteko ezta epe berri bat ere ebazpena emateko.

Aurrekontuko zuzkidura hori oinarri hartuta, azkenean emango den dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, eta zehaztu ere ondoko irizpideen arabera egingo da:

a) Horretarako eman den aurrekontuaren ehuneko 20 kopuru berdinetan banatuko da dirulaguntza eskatu duten lurraldeko onartutako ikastetxeen artean.

Gainerakotik:

b) Ehuneko 70 Araban onartutako eskolen artean banatuko da eta ehuneko 30, beste lurralde batean onartuta egonik, Araban ikastaroak antolatzen dituztenen artean. Batzuen zein besteen artean banatu, ondoko baremoari jarraiki eskola eskatzaileek batzen dituzten puntuen arabera banatuko:

1. Aisialdiko begirale ikastaroa 150 ordu: 3 puntu,

Ikastaroa euskaraz bada 4 puntu.

Moduluen kasuan, honako puntu hauek emango dira:

		Gaztelaniaz	Euskaraz
• Aisialdian hezteko jarduerak	60 ordu	1,2 puntu	0,40
• Talde eta hezkuntzaprozesuak	30 ordu	0,6 puntu	0,20
• Animazio teknikak eta baliabideak	60 ordu	1,2 puntu	0,40

2. Aisialdiko zuzendari ikastaroa, 290 ordukoa: 6 puntu,

Ikastaroa euskaraz bada 8 puntu.

Moduluen kasuan, honako puntu hauek emango dira:

		Gaztelaniaz	Euskaraz
• Talde eta hezkuntza prozesuak	30 ordu	0,6 puntu	0,20
• Animazio teknikak eta baliabideak	60 ordu	1,2 puntu	0,40
• Plangintza	120 ordu	2,5 puntu	0,80
• Koordinazioa eta dinamizazioa	80 ordu	1,7 puntu	0,60

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Puntuazioaren araberako banaketa sistema bat ezarriko da, eta horretarako, aurrekontu zuzkitura zatitu egingo da puntuazio baremoa aplikatzearen bidez erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntu guztien artean, eta horrek emango digu puntuaren balioa. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, baldin eta zenbateko hori eta gainerako diru sarrerak gehitzearen emaitzak jardueraren gastua gainditzen ez badu.

Aurrekontuko zuzkidura agortzeko behar den beste banaketa egingo da.

c) Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango eskaeran edo memorian aurkezten den aurrekontu diruz lagungarriaren ehuneko 60 baino gehiago.

d) Ez dute dirulaguntzarik jasoko, behin baloratu ondoren, 500 eurora iristen ez diren eskaerek.

6. Balorazio Batzordea eta ebazpena

1. Balorazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde hori ondokoek eratuko dute:

— Idazkaritza Teknikoko burua edo hark eskuordetutako pertsona.

— Zerbitzu Orokorretako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.

— Gazteriako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.

2. Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, Balorazio Batzordeak dirulaguntza emateko proposamen txostena egingo du.

3. Ez da erantzunaldiko izapiderik egingo, izan ere, ebazpena emateko eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez dira aintzat hartuko.

4. Gazteriaren Foru Erakundearen gastuak baimendu, xedatu eta agintzeko eskumena duen organoak, Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egiturari eta Funtzionamenduari buruzko Arautegia aldatzen duen ekainaren 8ko Diputatuaren Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, eskaera onartzeko edo ukatzeko ebazpena emango du bost hilabeteko gehienezko epean, eskaerak aurkezteko epea bukatu ondorengo egunetik kontatzen hasita.

5. Dirulaguntza eman ala ukatu den jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei eskaeran adirazitako helbidean,Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura erkidearen Legeak 42. artikuluan xedatzen den eran.

6. Ebazpenak ez du administrazio bidea amaituko eta horren aurka errekurtsoa jarri ahal izango zaio Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluari, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

7. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

Ehuneko 70, dirulaguntza ematean, eta gainerako ehuneko 30, deialdian ezarritakoa betetzen duen txostena aurkeztu eta gero. Justifikazio memoria aurkeztu ezean, aurreratutako zenbatekoa itzuliko da urriaren 19ko 11/2016,Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko Foru Arauak xedatzen den eran.

Dirulaguntzak 20.000 euro baino gehiago egiten baditu, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Idazkaritza Teknikoaren aldeko txostena nahitaezkoa izango da.

8. Dirulaguntza justifikatzea

8.1. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek 2017ko irailaren 29ra arteko epea izango dute Gazteriaren Foru Erakundean aurkezteko deialdiaren bidez diruz lagundutako jardueren azken memoria. Hona hemen gutxienez zer jaso beharko duen:

a) Egindako ikastaroak: zehaztu datak, parte hartzaileak eta tokia, eta egin haien balioespen orokor bat.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

b) Ekonomia laburpena:

1. Gastuen zerrenda.

2. Gastuen eta diru sarreren balantzea (egondako gastuak eta diru sarrerak deskribatuta).

3. Diruz lagundutako eskolaren izenean eman diren jatorrizko fakturak edo ordainagiriak, ikastaroak egiteak sortutako gastuengatik jasotako zenbateko osoa adierazita.

• Aitzitik, 300 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

• 100 euro baino gutxiagoko fakturetan, datu hauek jasoko dituen gastuen justifikazio erraztu bat egin beharko da: data, hornitzailea, kontzeptua eta zenbatekoa.

Gazteriaren Foru Erakundeak laginketa bidez eskatu eta egiaztatuko ditu egoki irizten dituen frogagiriak, nahitaez aurkeztu behar ez direnak; horretarako, hautatutako gastuak bidaltzeko eskatu ahal izango da.

Era berean, ez dira onartuko ordain frogagiri gisa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenen arloan zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak.

Ez da onartuko dirutan ordaintzea eragiketen zenbatekoa, baldin eta 2018ko ekitaldirako indarreko araudian finkatzen den zenbatekoa bada edo handiagoa edo haren kontrabalioa atzerriko monetan. Lehenago adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasun ematea edo zerbitzu egitea zatika egin bada, batu egingo dira hirugarren berarentzat egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

Erakundeak aurkeztutako fakturen edo ordainagirien jatorrizko agiriak eskatuz gero, zigilu marka jarriko zaie, eta bertan dirulaguntza, zeina justifikatzeko aurkeztu diren, agertu beharko da, baita egiaztagiriaren zenbatekoa dirulaguntza osoari edo zati bati egozten zaion ere. Azken kasu horretan, dirulaguntza xede den zatiaren zenbateko zehatza ere adieraziko da.

Jarduera egiten den aldian indarrean egongo den erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiriaren fotokopia.

Diruz lagundu ahal izango da gizarte izaera duten erakunde edo elkarteek eskainitako zerbitzuengatik bere gain hartutako BEZa, izaera hori aitortuta izan ala ez, baldin eta egoera bakoitzean aplikagarri diren baldintzak betetzen badituzte (BEZaren Foru Arauaren 20 hiru artikulua, arau horren 20 bat artikuluaren 8. idatz zatian jasotako zerga salbuespena aplikatzearen ondorioetarako).

4. Langile gastuen justifikazioa:

Soldatapeko langileak edota profesionalak kontratatzeak eragiten dituen gastuen justifikazioa eta ordainagiriak nahitaez aurkeztu behar dira.

Soldatapeko langileen lan egoera zehaztu beharko da, honako hau jasotzen duen taula batean: langileak, arduraldia, hilabetea, soldata likidoa, PFEZaren atxikipena, langileek Gizarte Segurantzari emandako zenbatekoa, enpresak Gizarte Segurantzari emandako zenbatekoa, eta guztirakoa.

Halaber, erakundeak kontratatutako pertsonen jatorrizko nominak edo fotokopia konpultsatuak, aurkeztu beharko dira beti, egon diren aldikoak hain zuzen ere. Horien ordainagiri gisa honako hauek onartuko dira:

— Jatorrizko nominak, langileak sinatuta.

— Langileak izenpetutako jatorrizko idazkia, non agertuko baita langileak kobratu egin duela eta kobratutakoa zein hilabetekoa den.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Nominen ordainketa multzokatuaren jatorrizko banku laburpena eta horrekin batera, enpresa/erakunde onuradunaren ziurtagiria, langileen nominak transferentzia horren kontra ordaindu direla zehazten duena eta langile bakoitzari aurkeztutako hilabete bakoitzeko zein kopuru dagokion adierazten duena.

Horrez gain, aurkeztu beharko dira nahitaez Gizarte Segurantzaren TC1 edo kotizazioen likidazioaren ordainagiria eta TC2 edo langileen zerrenda ereduak, eta dagozkien kotizazioak ordaindu izana frogatzen duten ereduak.

Elkarteek eta erakundeek baimena berariaz emanez gero, ez dira zertan aurkeztu hiru hilez behin aurkeztu beharreko eta jada aurkeztutako 110 ereduak, PFEZaren gaineko atxikipenak eta konturako diru sarrerak eta haien ordainagiriak, ez eta 190 eredua, atxikipenen eta konturako diru sarreren urteko laburpena ere.

8.2. Halaber, dirulaguntza eman duen ebazpenak xedatutako beste edozein agiri aurkeztu beharko da.

9. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko beste sailetatik edo haiei atxikitako erakundeetatik ekimen berdinetarako jaso daitezkeen dirulaguntzekin. Hala ere, bete egingo da dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorretan ezarritakoa.

10. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 6a

Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailea
JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2018.03.14 06:27:04 Z